

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 24/2024 Foru Dekretua, urriaren 1ekoa. Onespena ematea toki erakundeek finantzatu ezin dituzten eta pertsonentzako arrisku errealak edo potentzialak eragiten dituzten ezustekoei eta premiazko obrei aurre egiteko dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorre

Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, 5.1 artikuluan ezarritakoa aplikatzearen ondorioz lortutako urteko zuzkiduratik, gehienez ere ehuneko 6a foru arau horren beraren 4. artikuluan jasotako toki erakundeei eragiten dieten premiazko eta ustekabeko obrak finantzatzeko gorde ahal izango da.

Dirulaguntza hauen helburu nagusia da Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei sortzen zaizkien ezusteko gastuak eta larrialdi obrak finantzatzen laguntzea. Oro har, dirulaguntzen lerro honetan sar daitezke 9/2017 Foru Arauaren 4. artikuluan aipatutako toki erakundeek finantzatu ezin dituzten jarduketetatik eratorritako betebeharrak ekonomikoak, baldin eta jarduketa horiek berehala egin behar badira eta pertsonen arrisku errealak edo potentzialak eragiten badiete.

Halaber, seigarren apartatuan, zortzigarren xedapen gehigarriak ezartzen du Arabako Foru Aldundiak laguntza horien oinarri arautzaileak onartuko dituela, baita urteko deialdiak ere, zeinak hurrengo aurrekontu ekitaldira arte luzatu ahal izango baitira.

2018an indarrean jarri zenetik, Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 4ko 43/2018 Foru Dekretuak arautu du, lehia libreko araubidean, ezustekoei eta premiazko obrei aurre egiteko deialdietako dirulaguntzak emateko prozedura.

2018ko ekitalditik bildutako esperientzia oinarri hartuta, gomendagarria da 43/2018 Foru Dekretuan jasotako arauaketa berrikustea, eguneratzea eta hobetzea, deialdietarako araudi ordenatuagoa, operatiboagoa eta aipatutako zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakora hobe egokitzen dena ezartzeko.

Horretarako, oinarri berriak ezarri behar dira, dirulaguntzen jarduerarako foru araudian ezarritako printzipioei lotuta, bermatzeko betetzen direla Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarrian, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritako baldintzak.

Bestalde, dirulaguntzen lerro honen xedearen ezaugarriak kontuan hartuta, gertakizunak aurreikus ezin daitezkeenez eta horrek premiazko egoera eragingo duenez, dirulaguntzak izapidetzeko ebazteko epeak minimizatuko dituen prozedura bat behar da. Beraz, dirulaguntzak arin eta azkar izapidetzeko eta presazko egoera horiei eraginkortasunez erantzuteko, oinarri hauetan dirulaguntzak emateko ezarritako prozedura lehia libre da.

Ondorioz, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren sailaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokor hauek onartzen dira, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren 4. artikuluan aipatutako toki erakundeek finantzatzeko gai ez diren eta pertsonentzako arrisku errealak edo potentzialak eragiten dituzten ezustekoei eta premiazko obrei aurre egiteko.

Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 16. artikulua Gobernu Kontseiluari esleitzen dio Arabako Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru partzuergoen eremuan dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onesteko eskumena.

Deialdia idazteko, kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritako arau esparrua.

Aginduzko txostenak aztertu dira, eta Lurralde Orekaren eta Lurraldearen Antolamenduaren Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren sailaren oinarri orokor arautzaileak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren eta pertsonentzako arrisku errealak edo potentzialak eragiten dituzten ezustekoei eta premiazko obrei aurre egiteko dirulaguntzak lehia librearen araubidean emateko. Aipatutako oinarriak dekretu honen I. eranskin gisa jaso dira.

Bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Xedapen indargabetzailea. Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 4ko 43/2018 Foru Dekretua indargabetzea, onesten dituen Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek aurreikusi ezin diren egoerak izategatik finantzatu ezin dituzten ezustekoei eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak eta deialdia.

Xedapen iragankorra. Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek finantzatu ezin dituzten eta pertsonentzat arrisku errealak edo potentzialak eragiten dituzten ezustekoei eta premiazko obrei aurre egiteko dirulaguntzen eskaerei, dekretu honetan onetsitako arauketa indarrean jarri aurretik onartutako deialdien babesean aurkeztu badira, Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 4ko 43/2018 Foru Dekretua aplikatuko zaie, amaitu arte.

Azken xedapena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

LAURA PÉREZ BORINAGA

I. ERANSKINA

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren sailaren oinarri orokor arautzaileak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren eta pertsonentzako arrisku errealak edo potentzialak eragiten dituzten ezustekoei eta premiazko obrei aurre egiteko dirulaguntzak lehia librearen araubidean emateko

1. Xedea eta aplikazio eremua

1.1. Dekretu honek Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren sailak lehia librearen araubidean ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokor arautzaileak ezartzen ditu, ezustekoak eta premiazko obrak finantzatzeko diren aurrekontu kredituen kontura.

1.2. Honako hauek hartuko dira ezustekotzat eta premiazko obratzat: gertatutako istripuen ondorioz edo aurreikusi ezin zitezkeen beste egoera batzuen ondorioz berehala egin behar direnak, edo istripu edo egoera horiek ez gertatzeko helburua dutenak.

1.3. Oinarri arautzaile hauetan xedatutakoaren ondorioetarako, eskatutako jarduketak ezusteko eta premiazko obratzat hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Erakunde eskatzaileak eskatutako jarduketa finantzatzeko gai ez izatea.

b) Erakunde eskatzaileek aurrekontuan kreditu egokirik ez izatea.

c) Larrialdia edo ezustekoa eragin duen egoeraren ondorioz, pertsoneri eta/edo materialei kalteak eragiteko arrisku errealak edo potentzialak egotea.

d) Eskatutako jarduketak herriguneetan egin behar izatea, edo haietatik kanpo baldin eta etxebizitzak edo bestelako higiezinak babesteko beharrezkoak badira. Herrigunetzat hartuko da aplikatzeko den hirigintza araudiak hiri lurzoru gisa sailkatutako lurzoruarekin bat datorrena.

e) Jarduketaren ondasunen titulartasuna toki erakunde eskatzaileena izatea.

f) Gertatutako istripuen edo aurreikusi ezin ziren beste egoera batzuen ondorio bada eskatutako jarduketa, larrialdia edo ezustekoa eragin duen egoera laguntza eskaera egin aurreko bi hilabeteetan gertatua edo agertua izan behar da.

1.4. Urteko deialdian beste irizpideren bat ezarri ezean, ulertuko da toki erakundeak ez direla gai jarduketak finantzatzeko, baldin eta likidatutako azken ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren eta finantzatu beharreko jarduketaren aurrekontuaren arteko ratioa 3 (hiru) baino txikiagoa bada.

Arabako kontzejuen kasuan, eskaera egiten den egunean kutxan dauden kopuruak hartuko dira erreferentziatzat. Kontzeptu horri tokiko erakundearen obretarako konprometitutako baliabideen zenbatekoa deskontatuko zaio, baldin eta obra horiek kontratatzekeo espedienteak hasia onetsi bada kontzejuan. Zenbateko hori berrikusi eta egokitu ahal izango da, instrukzio organoko teknikariek beharrezkotzat jotzen duten dokumentazio gehigarria oinarri hartuta.

1.5. Inolaz ere ez dira ezusteko eta premiazko obratzat hartuko betebeharrak hauek: interesak, errekaruak, zehapenak (administratiboak zein penalak) eta prozedura judizialtako gastuak.

2. Printzipio orokorrak

2.1. Ematen diren dirulaguntzak Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren 3. artikuluan aipatutako printzipio inspiratzaileen arabera kudeatuko dira: lurralde oreka, lankidetzeta, toki autonomia eta toki erakundearen eskuduntza bereziak errespetatzea, publikotasuna eta objektibotasuna.

Era berean, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan dirulaguntzen jarduerarako zehaztutako printzipio inspiratzaileak aplikatuko dira.

2.2. Dirulaguntza hauen onuradun diren toki erakundeek Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan jasotako printzipio orokorren arabera bideratu behar dituzte beren jarduketak, eta lege horretan esleitutako eskumenen eta eginkizunen arabera dagozkien betebeharrak bete. Zehazki, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko administrazio kontratuak egiten direnean, aipatutako legegintzako dekretuaren 22. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Ondorioz, kontratua betetzeko baldintzen artean adjudikaziodunaren betebeharrak hau ezarriko da: prestazioa egitean emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu beharra, kontratuen legeriarekin bat etorritik, baldin eta organo eskudunak ezarri badu kontratazioan neurri hori aplikatu behar dela.

2.3. Dirulaguntzaren xede den jarduketa egiten denean, toki erakundeak ahaleginak egin beharko ditu oztopo arkitektonikoak ezabatzeko, egonez gero.

3. Erakunde onuradunak

3.1. Foru dekretu honetan xedatutako dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira Arabako Lurralde Historikoko kontzejuak, udalak (Vitoria-Gasteizkoa izan ezik) eta kuadrillak.

3.2. 3. oinarri honen 3.1 apartatuan adierazitako erakundeak onuraduntzat hartuko dira, baldin eta dirulaguntza lerro honen oinarri den egoeran badaude eta oinarri arautzaile hauetan, deialdian eta Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarrian, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3.3. Ezin izango dira erakunde onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluaren aipatzen diren arau-hausteengatik zehapena jaso dutenak, ez eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotako kasuetan daudenak ere.

4. Zuzkidura eta zenbatekoa

4.1. Dirulaguntzak deialdi bakoitzerako Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Foru sailaren aurrekontuan laguntza lerro honetarako gaitutako aurrekontu partidei egotziko zaizkie.

Aurrekontu partida horiek dagozkien funtsez hornituko dira, Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan xedatutakoaren arabera.

4.2. Deialdietan dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ezarriko da, dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta. Toki erakunde bakoitzak ezin izango du jaso 500.000,00 euro baino gehiago.

4.3. Eman beharreko dirulaguntza diruz lagun daitekeen gastuaren ehuneko 100era irits daiteke, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 29. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5. Eskaerak nola aurkeztu eta horretarako epea

5.1. Eskaerak aurkezteko epea deialdi bakoitzean ezartzen dena izango da, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

5.2. Deialdi bakoitzean zehaztuko da eskaerak nola aurkeztu behar diren.

5.3. Dirulaguntza eskaera bakoitzarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskatutako jarduketaren proiektua, aurreproiektua, memoria baloratua edo aurrekontua, egin beharreko obrak deskribatzen dituen eta irismena ezagutzeko behar besteko banakapena duen balorazio ekonomikoa jasotzen duena.

b) Arloko teknikari eskudunak egindako txostena, honako alderdi hauek jasoko dituen:

1. Jarduketaren xede diren ondasunak zein diren eta non dauden. Katastroko lurzatiaren badaude, katastroko erreferentziak adierazi beharko dira.

2. Larrialdia edo ezustekoa eragin duen egoera zein den, eta noiz gertatu edo agertu zen.
 3. Eskatutako jarduketa egiteko beharra justifikatzea.
 4. Jarduketaren xede diren ondasunen kontserbazio eta mantentze egoera zein zen, larrialdia edo ezustekoa gertatu aurretik.
 5. Sortutako kalteen edo dagoen arrisku egoeraren argazkiak.
- c) Erakunde eskatzaileak kreditu egokirik ez duela eta eskatutako jarduketa finantzatzeko gaitasunik ez duela egiaztatzen duen dokumentazioa. Horretarako, honako hauek aurkeztu beharko dira:

1. Erakunde eskatzailea kuadrilla edo udal bat bada:

- Aurrekontu kreditu nahikorik ez izatearen ziurtagiria.
- Likidatutako azken ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren ziurtagiria.

2. Erakunde eskatzailea administrazio batzarra bada:

- Bankuko kontuetako saldoaren eta bankuko posizioen ziurtagiria, eskaera egiteko unean.
- Fede emailearen ziurtagiria, honako hauen zerrenda jasotzen duena: kontzejuak kontratazio espedientea hastea onetsi duen obren zerrenda; eta administrazio batzarrak jarduketa horietarako hitzemandako baliabideen zenbatekoa.

d) Obrak dirulaguntza ematen denetik aurrera hasteko epearen aurreikuspena. Aurreikuspen horrek kontuan hartu beharko du udal organoei edo udalez gaindiko organoei lizentziak edo baimenak eskatzeko betebeharra, bai eta kontratazio prozedurarako behar diren administrazio izapide guztiak ere.

e) Lanen garapenerako programa edo obra plan adierazgarria, egikaritze epearen eta kostuen aurreikuspena jasota, hala badagokio.

f) Erakunde eskatzaileak helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutan lortu edo eskatu dituen dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideak jasotzen dituen ziurtagiria.

g) Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak emandako datu meteorologikoen ziurtagiria, larrialdia edo ezustekoa fenomeno natural kaltegarrien ondorioz gertatu bada.

Deialdiek eskaerekin batera aurkeztu beharreko agiriak gehitu, ezabatu edo aldatu ahal izango dituzte.

5.4. Nolanahi ere, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

5.5. Baldin eta aurkeztutako eskaerek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren sailak erakunde interesdunei hamar eguneko epea emango die hutsa konpon dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten. Hori egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eskaeran atzera egin dutela ulertuz.

6. Deialdia ebaztea

6.1. Laguntzak eskaeren aurkezpen hurrenkeraren arabera esleituko dira, deialdirako ezarritako saldoa edo deialdiaren indarraldia amaitu arte. Eskaeren aurkezpen hurrenkera zehazteko kontuan hartuko den data oinarri hauetan eta, hala badagokio, urteko deialdian xedatutakoaren arabera eskatzen diren agiri guztiak garaiz eta forma egokian ematen diren unea izango da.

6.2. Eskaera zuzen eta osorik jaso ondoren, prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena duen organoak eskaera aztertuko du, dagokion instrukzio txostena emateko. Txosten hori behar bezala arrazoituko da, eta emakida proposamena egiteko eskumena duen kide anitzeko organoari helaraziko zaio.

Prozedura honen instrukzioa egiteko organo eskuduna Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren arloan eskumena duen unitate organikoa izango da, salbu eta laguntzen deialdietan beste unitate organiko bat izendatzen bada.

6.3. Instrukzio txostena ikusi ondoren, kide anitzeko organoak ebazpen proposamena egingo du, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio. Proposamenak eskaera bat baino gehiago baditu, haien lehentasun hurrenkera jaso beharko du.

Kide anitzeko organo hori honako hauek osatuko dute, betiere dagokion deialdian bestelakorik ezartzen ez bada: Lurralde Orekaren zuzendariak, batzordeburu gisa, prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena duen zerbitzuari atxikitako pertsonen arteko batzordekide batek edo gehiagok, eta unitate horretako zerbitzuburuak edo hura eskuordetzen duenak, idazkari gisa.

6.4. Gastuak baimendu, xedatu eta agintzeko eskumena duen organoak ebartziko du dirulaguntza ematea edo ukatzea, deialdian ezarritako epean. Halakorik ezean, eman beharreko ebazpena emango du organo eskudunak, hiru hilabeteko epean gehienez, eskaera zuzen eta osorik sartzen denetik aurrera. Gehieneko epea igarota esanbidezko ebazpenik hartu ez bada, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertu ahal izango dute erakunde eskatzaileek.

6.5. Instrukzio txostenean jasotako aginduak eta baldintzak nahitaez bete beharrekoak dira, eta dirulaguntza jasotzeko baldintza izango dira ebatzi duen organoak berariaz onetsi baditu dirulaguntza emateko xedapenean nahiz instrukzio organoak kide anitzeko organoari aurkeztutako txostena onartzean.

6.6. Eskatzaileei ez zaie entzunaldiko izapiderik egingo, zeren eta, ebazpena ematean, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira aintzat hartuko.

6.7. Dirulaguntza emango zaien erakunde eskatzaileen zerrenda jasoko da ebazpenean, eta, halaber, berariaz agerraraziko da gainerako eskaeren ezespena, halakorik egonez gero.

6.8. Emandako dirulaguntza ez da inola ere handituko.

6.9. Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duen bezala.

6.10. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bat etorritz Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoarekin, ebazpena jakinarazi eta bi hilabeteko epean; hori guztia, 44. artikuluan jasotako aldez aurreko aukerako errekerimendua gorabehera.

7. Dirulaguntza jasotzen duten erakundearen betebeharrak

7.1. Dirulaguntza jasotzen duten erakundeek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren sailak eskatutako informazio guztia eman behar dute.

b) Dirulaguntza osoa erabili behar dute horren xede den jarduketa gauzatzeko.

c) Kontratazio publikoaren arloko legerian eta, bereziki, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete behar dute.

d) Xede bererako jasotzen dituzten bestelako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide publiko zein pribatu guztien berri eman behar dute.

e) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretan gertatzen diren aldaketa guztiak jakinarazi behar dituzte.

8. Xedea gauzatzeko epea

8.1. Xedea gauzatzeko epea urteko deialdian ezarriko da. Hurrengo aurrekontu ekitaldira arte luzatu ahal izango da.

8.2. Emandako laguntzaren erakunde onuradunak dagokion eskaera arrazoitua aurkeztu ondoren, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren sailak diruz lagundutako jarduketa egiteko epea luzatu ahal izango du. Luzapen hori ez da 6 hilabetetik gorakoa izango, eta hasierako gauzatze epea amaitu baino lehen eskatu beharko da.

9. Dirulaguntzak ordaintzea

9.1. Ordainketak izendunak izango dira erakunde onuradun bakoitzarentzat.

9.2. Dirulaguntza, zati batean edo osorik, konturako ordainketa bidez emango da. Horretarako, erakundeak gastuaren egiaztagiria (fakturak) eta, hala badagokio, obra ziurtagiriak eman beharko ditu. Fakturak behar bezala onetsi beharko ditu erakunde onuradunak. Urteko deialdietan ezarriko da agiri horiek aurkezteko epea.

9.3. Gastuaren lehen ziurtagiriarekin edo frogagiriarekin batera, kontratazio prozeduraren adjudikazio ebazpena aurkeztu beharko da. Ordainketak justifikatu beharreko aurrerakinak izango dira.

9.4. Laguntzaren onuradunek egindako ordainketen egiaztagiria bidali beharko dituzte dirulaguntzaren xede den jarduera amaitu ondoren, eta bi hilabeteko epea izango dute, dirulaguntzaren azken ordainketa egiten den egunetik aurrera.

10. Dirulaguntzaren justifikazioa

10.1. Dirulaguntzaren ebazpenean ezarritako baldintzak bete direla eta ezarritako helburuak lortu direla justifikatzeko, egindako gastua justifikatzeko kontua aurkeztu beharko da.

10.2. Justifikazio kontua honako hauek osatuko dute gutxienez:

a) Jarduketa memoria, dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Instrukzio organoko teknikariek gauzatze proiektua idazteko agindua eman badute, obra amaierako agiria ere aurkeztu beharko dute.

b) Jarduketarako gastu eta inbertsio guztien zerrenda sailkatua, honako hauek adierazten dituen: hartzekoduna, faktura zenbakia, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketaren data.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso dituzten beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasuna, zenbatekoa eta nork emana den zehaztuz.

10.3. Justifikazio kontua aurkezteko hiru hilabete emango dira, gauzatzeko epea amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

10.4. Adierazitako epea igaro eta lehen aipatutako agiriak aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak baliogabetu egingo dira, eta "konturako ordainketa" gisa jasotako dirua itzultzeko espedienteari hasiera emango zaio.

11. Dirulaguntzak pilatzea eta haien arteko bateragarritasuna

Emandako laguntzak bateragarriak dira helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntza, diru sarrera edo baliabiderek, bertiere garatu beharreko jardueraren kostua gainditzen ez badute.

12. Oinarriak ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea

12.1. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako kasuetan, jasotako dirulaguntza itzuli beharko da.

12.2. Onetsitako dirulaguntzaren gainean jasotako zenbatekoak itzultzea zuzenbide publiko diru sarreratzat hartuko da, eta Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera kobratuko da.

12.3. Toki erakundeek Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean (TEFFF) dituzten partaidetzak balizko itzulketei berariaz lotuta egongo dira.

12.4. Honako irizpide hauek ezartzen dira dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen ez diren kasuak mailakatzeko:

a) Emandako dirulaguntzaren xede den proiektua ez gauzatzea ezarritako epealdiaren barruan: emandako dirulaguntza osoa galduko da.

b) Modu partzialean eta epealdiaren barruan gauzatzea dirulaguntzaren xede den proiektua: gauzatu gabeko zatiari dagokion dirulaguntza zatia galduko da, betiere egindako zatiaren bidez diruz lagundutako jarduketaren xedea bete bada. Bestela, emandako dirulaguntza osoa galduko da.

c) 10. apartatuan ezartzen denaren arabera ez justifikatzea edo behar bezala ez justifikatzea: emandako dirulaguntzatik justifikatu ez den zatia galduko da.

Ezarritako epealdian onuradunak justifikazioa aurkezten ez badio administrazio organo eskudunari, horrek errekerimendua egingo dio hamabost eguneko epealdi luzaezinean aurkezteko.

Errekerimendua egin ondoren justifikazioa aurkezten ez bada, emandako dirulaguntzatik justifikatu ez den zatia galduko da.

13. Egiaztapena

13.1. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuak deialdien garapenerako egokitzat jotzen dituen ebazpenak emango ditu, dirulaguntza izapidetzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta ekintzak abiarazi ahal izango ditu erakunde onuradunek emandako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko.

13.2. Horretarako, onuradunen betebeharra izango da egin dituzten jarduketei buruz Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren sailak eskatzen dizkien datu eta dokumentu guztiak ematea. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu sailak, Kontuen Euskal Epaitegiak edo eskumena duten beste erakunde batzuek eskatzen dizkieten argibide guztiak ere eman beharko dituzte.

14. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sor daitekeen edozein zalantza Aldundiko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren sailak ebatziko du.

15. Errekurtsoak

Oinarri hauek eta beren ondoriozko administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak arautzen dituen kasuetan eta bertan finkatzen den moduan.

16. Aplikatzekoa den araudia

Oinarri hauetan xedatu ez den guztiari dagokionez, honako arau hauek aplikatuko dira: Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Araua; Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorra; unean-unean indarrean dagoen aurrekontu antolamenduko foru araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta aplikatzekoa den gainerako araudia.